



## Elexpuru jauregia (Bakio)

### Deskripzioa

Aldapan dago, eta bere izenak dioen bezala, Bakioko Santa María Elizaren gainean kokatzen da. Toki atsegina da, inguruan Jata mendia ikusgai izanik, mahats-parraz beteriko mendixka, sarritan, hesiekin ixten duten finken barruan.

Elexpuru jauregia da, galtzada-eskalinata baten bidez sartzen gara, gaur egun belarrez beteta dagoena, ezki eta haritzez, hain zuzen. Aurrera eginez gero, ataurre itxi batera iritsiko gara, jauregiaren ardatza, eta fatxada eliza nahiz aranari begira dugu. Hiru solairuko eta lau isurki estalkiko eraikina da. Halaber, bigarren mailako hiru fatxadetan harlangaitza erabili da, eta, nagusian, aldiz, modu bikainean moztutako harlandu ilunarekin akabatu da.

Fatxada nagusian osagairik interesgarriak biltzen dira. Sabaia jotzen duten pilastra leunetan markaturiko lau kaletan egituratzen da, orbelen irudiekin egindako tailua antzeman daitekeelarik. Izatez, ekialdeko fatxada berritu zenean zati bat artatu zen. Behe-solairuko erdigunean atari angeluzuzena ageri da, arku zuzenarekin eta egurrezko sabaiarekin. Atari horretara iristeko, zutabe nagusiaren gainetik erdi-puntuko arkuak dituen korridore bikoitza iragan behar da. Zutabe nagusi horren ardatza, kasuan kasuko pilastrarekin markatuta, hautsi egiten da, armarrria toki pribilegiatu horretan ikusgai egon dadin. Armarrriari dagokionez, motosdun kasketak, lehoiak eta behean kerubina ageri dira. Armak gaztelukoak dira, harri gainean egindakoak, eta zortzi azeriren irudiarekin bordatuta.

Atariko sarbidea izan ezik, baogune guztietan arku zuzenak eta definituak daude belarri itxurarekin akabatutako plaka leun eta finen bidez. Bigarren solairuko kasuan, berdinduta dauden balkoitoxoak daude, korapilo konikodun karelekin.

Esparruen funtzio-egitarauari helduz gero, atari lauzatutik igarotzen da, eta bertatik arku zuzenez beteriko ate zabal bat iragan eta sukalde batera iristen gara. Toki horretan, eskailera dago, solairu nagusira eramango gaituena. Bigarren solairuko alderdi nagusian egongela ageri da, eta gainerako esparruak horren inguruan kokatu dira, bai eta hirugarren solairua ere.

Atzealdeko baratzera iristeko zubia modernoa da, jauregira erantsita dagoen zerbitzu-modulua den bezala. Gauza bera gertatzen da ataurrearen hegalean altxa den landetxearekin edo landetxeekin.

### Estiloa eta data

Formak oso lagungarriak dira, oso argiak baitira: jauregia XVII. mendeko eraikin barrokoa da, apainketarik gabekoa. Erlaitzek, moldurek, baoguneek, burdina-korapiloek, harburuen eta armarren tailuak aipatu mendean kokatzen gaituzte. Ez dago data zehatza eraikin horren inguruan, baina ustez, XVII. mendearen azken herenean koka dezakegu. Elexpurutarrek Santiagoko Gizonen Ohituraz gozatu ahal izan zuten 1705. urtean. Urte batzuk lehenago jauregi hau eraiki zuten.

### Balorazioa

Jauregi hau, Bizkaian ditugun beste hainbeste bezalaxe, landagunean kokatuta dagoen etxe handia dugu. Elexpurun ageri-agerian dagoena baloratu behar da: oso arraroa da halako ataria eraikin-mota horretan aurkitzea. Izan ere, ohikoa da atari hori landetxeetan eta mendiko etxeetan aurkitzea. Hori dela medio, ezin da baztertu horren diseinatzailea mendiko maisu batek egin duela. Horrez gain, bitxia dirudi lau ardatzetan egituratutako fatxada, baina lengoia, azken batean, jantzia da.

Gisa berean, azpimarratzekoa da eraikinaren handitasuna, eta, gainera, bizilekuaren kontzeptua ere aintzat hartu behar da. Izatez, jauregia duin bihurtuta geratu da elizarekin komunikatzen duen galtzadagatik. Horrela, inguruan dauden bestelako landetxeengandik ezberdintzen da. Horien artean, Bakion eta Bermeon daudenak, Elexpurutarren jabetzapean egon ziren, eta errota, burdinola eta hainbat mahasti zituzten. Ezinezkoa izango litzateke gaur egun eraikina nola dagoen pentsatzea.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### Elexpuru jauregia

Bakio. (*Basigo auzoa, 16*).

#### Nola heldu:

Bakiora Mungiatik datorren bidetik sartuta, ezkerreko desbideraketa hartu behar da. Andra Mari parrokiara eramango gaitu. Horren ondoan dagoen plazatik jauregia forma karratu ikus dezakegu. Auzo-bide estu batek bertara iristeko aukera ematen digu.

#### Bisitak egiteko ordutegia:

Jabetza pribatua da.

#### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Bakio*)

- Andra Mariaren Zeruratzea eliza.
- Quintatorre egoitza.
- Alkortene egoitza.
- Ormatza jauregia.
- San Pelaio baseliza.